



## ESKUBALOIA (BENJAMINAK – ALEBINAK) JOLASAREN ARAUAK

- Jokoan, atezain bat eta pistako 4 jokalaria arituko dira. Partida jokatzeko orduan talde batean jokalaria nahikorik ez balego, guztira 4 kirolari, horrela jokatuko da:
  - ✓ 3. eta 4. mailetan taldeak nahastuko dira.
  - ✓ 5. eta 6. mailetan, taldeak nahastu eta partida galduko du.
- 10'ko 4 zati jokatuko dira, eta aldaketak guztiek denbora bera joko dezaten erabiliko dira. Dena dela, lesio edo istripurik izan ezean, lehen hiru zatietan ezingo da aldaketarik egin. Laugarren zatian nahi beste aldaketa egin ahal izango dira.(talde batean 10 jokalaria baino gehiago badaude aldaketak edozein momentutan egin ahal izango dira)
- Lehenengo hiru zatietan jokalaria bakoitzak gutxienez zati bat, eta gehienez, bi zati joko ditzake.
- Zati bakoitzean atezaina aldatu egingo da. Hau da, partida bakoitzean 4 atezain arituko dira.(arau hau betetzen ez duen taldeak abisua jasoko du eta berriro errepikatzen bada, partida galdutzat emango zaio)
  - Ezin zaio baloiari bi eskuez bote eragin.
  - Gola edozein jokalarik sartu dezake, baita atezainak ere.
  - Gehienez 3 pauso eman daitezke baloiari bote eragin gabe.
  - Baloiaren jabetza 3" takoa gehienez ( gero, pase, bote edo jaurti)
  - Bote LIBRE
  - Aurkako taldea arean sartzeagatik falta seinalatuko da, eta atezainak areako edozein puntutik atera dezake.
  - Alboko sarea egiterakoan, atera zuzenean jaurtiz gola sar daiteke.

Horretarako beti alboko marra zapalduz egin behar da sarea.

Jarrera Desegokiak: Jokalari batek jarrera desegokia izaten badu, epaileak, entrenatzaileak edo/eta koordinatzaileak 2 minuturako kanporatu dezake. Beste taldekide bat sartuko litzateke bere partez.

Defentsa bat ateko arean sartzean, penaltia seinalatuko da.

Atezaina areatik irtetzen denean ere penaltia seinalatuko da.

Atezainari baloia pasatzea penaltia izango da.

PARTIDAREN EMAITZA - GOLAK ZENBATZEKO ERA;

➤ Laurden bakoitzean sartutako golak apuntatuko dira. Emaita honela lortuko da;

Lehenengo 2 laurdenetako golen baturak emaitza emango du. Gol gehien lortu duenak puntu 1 lortuko du, besteak 0. Hiru eta laugarren laurdenetako golekin beste hainbeste.

Honela, emaitza 1-0 (erdi bat irabazi eta bestea berdindu); 1-1 (erdi bat irabazi eta beste galdu) edo 2-0 (bi erdiak irabazi) izan daiteke.

➤ PORTERIAK: 3./ 4. maila eta 5.maila neskek: Langa bai + area txikia

5. maila mutilak :langa bai + area handia

6. maila neska eta mutil: langarik ez + area handia

